

EBATZI DUT:

Lebenengoa.— Beraiek hala eskatuta, batzordean duten kargutik kentzea Purificación López Peña andrea eta Javier Elorz Lambarri jauna, Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziadunak.

Bigarrena.— Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera izango du eragina.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Osasun sailburuordeari edo Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko ekainaren 26a.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.

KULTURA SAILA**4826**

AGINDUA, 2007ko uztailaren 17koa, Kultura sailburuarena, Mutiloako (Gipuzkoa) Mañastegizar baserria, Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenez Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16. eta Estatutuaren 10.19. artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipatutako eskumen horretan oinarrituz, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen 2007ko maiatzaren 15eko Ebazpenaren bidez Mutiloako (Gipuzkoa) Mañastegizar baserriak aurkezten zuen balio kulturala eta indarrean dagoen legedia ikusirik, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Nagusian Sartzeko espedienteari hasiera eman zitzaion. Ebazpen hau 2007ko ekainaren 19ko 117. zk. duen EHAA argitaratu zen.

Aipatutako espedientearen administrazio-tramitazioak espediente jendaurrean jartzera eta interesdunei entzutera behartu zuen, aipatutako 7/1990 Legeko 17. eta 11.3. artikuluetan eta artikuluko horiekin erlazionatutako beste xedapenetan ezarritakoarekin bat etorritz.

RESUELVO:

Primero.— Cesar a petición propia a Dña. Purificación López Peña, Licenciada en Medicina y Cirugía General y a D. Javier Elorz Lambarri, Licenciado en Medicina y Cirugía General como vocales del Comité Ético.

Segundo.— La presente Resolución surtirá efecto a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad o la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, en el plazo de un mes a partir de su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de junio de 2007.

La Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.

DEPARTAMENTO DE CULTURA**4826**

ORDEN de 17 de julio de 2007, de la Consejera de Cultura, por la que se inscribe el Caserío Mañastegizar en Mutiloa (Gipuzkoa) como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista del interés cultural del caserío Mañastegizar en Mutiloa (Gipuzkoa), fundamentado en su valor cultural, y a tenor de lo dispuesto por la normativa legal aplicable, resolvió incoar mediante Resolución de 15 de mayo de 2007, publicada en BOPV n.º 117, de 19 de junio, el expediente para su inclusión en el Inventario General de Patrimonio Cultural Vasco.

La tramitación administrativa del referido expediente implicó, de conformidad a lo previsto en los artículos 17 y 11.3 de la mencionada Ley 7/1990 y en las demás disposiciones concordantes, el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública, durante el cual, también, se concedió audiencia a los interesados.

Legeak agintzen duen izapideak bete ondoren, ez da alegaziorik aurkeztu.

Hori guztia dela eta, aipaturiko Legearen 17. artikuluan oinarrituz, Euskal Kultura Ondarearen Zerbitzu Teknikoek egindako txostena aztertu ondoren, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen proposamena aintzat hartuz, honako hau

EBATZI DUT:

Lebenengoa.– Mutiloako (Gipuzkoa) Mañastegizar baserria Kultura Ondasun gisa, Monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzea.

Bigarrena.– Euskal Kultura Ondarearen Legeak aurreikusten dituen ondorioetarako Sailkatutako Ondasunaren deskribapen formal egitea, agindu honen II. eranskinean agertzen den bezala eta I. eranskinean azaltzen den mugaketarekin bat etorritz.

Hirugarrena.– Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 26. artikuluan aurreikusten diren ondorioetarako Jabego Erregistroari Agindu honen berri ematea.

Laugarrena.– Mutiloako Udalari bere hirigintza-araudia ondasun horrentzat egokitu dezan eskatzea Euskal Kultura Ondarearen Legeak xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Espedienteko interesdunei, Mutiloako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Lurralde Antolamendu eta Sustapenerako sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari Agindu hau jakinaraztea.

Seigarrena.– Ondasuna Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzen duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lebenengoa.– Inskribatzeko den Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik izango ditu ondorioak.

Bigarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka, interesdunek aukerako berraztertzeo errekurtsoa jar diezaioke Kultura sailburuari hilabeteko epean, edo bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salari bi hilabeteko epean, agindu hau argitaratzen edo jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko uztailaren 17a.

Kultura sailburua,
MIREN AZKARATE VILLAR.

Habiéndose dado correcto cumplimiento a los trámites legales establecidos al efecto, no se han presentado alegaciones.

Es por todo lo que antecede y, a tenor de lo establecido por el artículo 17 de la mencionada Ley, visto el informe del caserío Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural Vasco y a propuesta del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,

RESUELVO:

Primero.– Inscribir el Caserío Mañastegizar en Mutiloa (Gipuzkoa), como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

Segundo.– Proceder a la descripción formal del mencionado Bien conforme a la delimitación que se indica en el anexo I y en los términos expresados en el anexo II de la presente Orden.

Tercero.– Comunicar la resolución al Registro de la Propiedad, a los efectos previstos en el artículo 26 de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco.

Cuarto.– Instar al Ayuntamiento de Mutiloa para que proceda a la protección de dicho inmueble contemplándolo en su instrumento de planeamiento urbanístico municipal.

Quinto.– Notificar la presente Orden a los interesados, así como al Ayuntamiento de Mutiloa, a los Departamentos de Cultura y Ordenación y Promoción Territorial de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco.

Sexto.– Publicar la presente Orden de inclusión en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden de inscripción surtirá efectos a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– Contra la presente Orden que agota la vía administrativa, los interesados podrán interponer, en su caso, previamente recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Cultura en el plazo de un mes, o bien, directamente, recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco dentro del plazo de dos meses, contados a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Vitoria-Gasteiz, a 17 de julio de 2007.

La Consejera de Cultura,
MIREN AZKARATE VILLAR.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren eremua.

Mugaketak eraikina bera eta haren ingurumaria hartzen ditu. Horrenbestez, eremuak muga hauek ditu: NE-ra baserriko fatxadarekiko lerro paralelo bat, 50 metrora. SE-ra lerro paralelo bat, fatxadatik 40 metrora. SW-ra lerro paralelo bat, fatxadatik 25 metrora eta baserrira jotzeko bidearen ertzean. Azkenik, NW-ra, baserritik 130 m-ra dagoen lerro bat. Mugaketa honen barruan sartzen dira Mutiloako meatzetako mea-garbitoki eta kargalekuko hondakinak.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Proposatzen den mugaketa justifikatzen da Mañastegizar baserriko ingurumariko ingurumen-balioak eta ikuseremua babestu behar direlako, baita bertatik NW-ra kokatuta dauden mea-garbitokiaren hondakiak ere. Inguruaren mugaketak -beharrezkoa baita ondarea behar bezala babesteko eta balioesteko- zera dakar, baserriaren ondoko inguruak ere babestea, alegia, inguruko lurrak eta baserrirako sarbidea, horrela baserriaren bereizgarritasunak kontserbatzeko. Hori dela eta, mugaketak ez du soilik baserriaren eraikina hartzen, ezpada ere haren ingurumaria.

ANEXO I


Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye, por un lado, el propio edificio en sí y, por otro, el entorno que lo circunda. Así, el área de la delimitación queda definida por los siguientes límites: al NE, una línea distante 50 m paralela a la fachada del caserío. Al SE, una línea paralela situada a 40 m de la fachada. Al SW, una línea paralela distante 25 m de la fachada y el borde del camino de acceso al caserío. Finalmente, al NW, una línea situada a 130 m del caserío. Dentro de esta delimitación se incluyen los restos del lavadero y cargadero minero de las minas de Mutiloa.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales, del caserío Mañastegizar, así como los restos del lavadero minero situado al NW del mismo. La delimitación del entorno necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien catalogado, implica la protección de los espacios adyacentes al caserío ocupados por los terrenos circundantes y acceso al edificio, a fin de preservar el carácter propio del caserío. Por ello esta delimitación incluye no solamente la edificación propiamente dicha sino también el entorno que lo rodea.



II. ERANSKINA

Deskribapena

Oinplano angeluzuzena duen familia bakarreko baserria, SE-ra jotzen duen fatxadarekiko perpendikularki dagoen gailurra duena. Bi isurkiko artesau erako hodi-teiladun estalkia. Harlangaitzez egindako perimetro-pareta, harlanduzko eskantzuduna. Solairu bakarra, ganbara eta sotoa ditu. Exentua; SE aldean, ate-aurreen parean, ogi-labe moduan erabilitako eranskin bat du, bi isurkikoa. W-ko ertzaren ondoan, exentua baita ere, garaje gisa erabiltzen den hormigoizko eranskin itsugarri bat dago. Fatxada nagusiak ate handi bat du N aldetik, bertatik sotora pasatzeko. Sotoaren gainean, behe-solairuan beraz, balkoi kareldun bat dago. Sarrera nagusia fatxada honetan dago, baina bertatik S aldera. Atalburu moduan habe-sektore bat erabili da. Sarrera orri bakarreko atea da, zeinak goi-eskuinaldeko ertzean behatxulo txiki bat duen. Lehenengo solairuak ganbarara jotzen duten baoak ditu. Pinoia zati batean itxita dago oholtzaren bidez. NE-ko fatxada altua da, lurraren desnibelak horretaratuta, eta sotoa argitzen duten bi gezi-leiho ditu. Behe-solairuan bi balkoi kareldun ditu, lehengo harlanduzko bi lehio zaharren ordeko. Hirugarren leihoa itsututa dago. Ganbara alde honetatik itxita dago oholtzaren bidez. NW-ko fatxadak leiho txiki bat du behe-solairuan, eta bi gezi-leiho txiki ganbararen parean. Azkenik, SW-ko fatxadak -oso behean gelditzen da lurraren desnibelaren ondorioz- teilatupe-eranskin bat du alderik alde, teilatuaren luzakin batek estalia. Bertatik ganbarara igaro daiteke zuzenean, zurezko zubi baten bitartez. Estalki nagusitik irteten den teilatutxo batek babesten du sarbidea. Lehenengo solairuaren parean, teilapearen azpian, karrerapea dago, gurdiak eta nekazaritza-tresnak gordetzeko tokia alegia.

Eraikinak ganbarako forjaturainoko barne karga-hormak ditu. Horma horiek honela daude banatuta: fatxada nagusitik sartu eta lehenengo hormartean fatxadarekiko paraleloki, karga-horma bat dago. Horien arteko tartean sarrera dago. Sarreratik eskuinaldean sukaldea dago, eta sukaldea bereizteko eraikinaren NE alde hartzen duten geletatik beste karga-horma bat dago perpendikularki. Gainerakoan, erdialdean beste karga-horma batek ukuilua bitan zatitzen du. Ganbarak pieza bakarreko zazpi zutoin-ardatz ditu, erregurlarki jarririk, zeinetarik bi baserriak lehendik zuen dolare gotiko baten pilare bi diren. Zutoin-ardatz horiek habeak eta besoak lotzen dituzte (enarabuztan eran), bai eta petralak eta gapirioak ere, baserriaren egitura osatuz. Fatxada nagusiko pinoia itxita dago oholtza matxinbratu bidez.

Mañastegizar jatorriz XVI. mendeko baserria da, eta garai horretako zurezko egitura zati handi bat gordetzen du.

ANEXO II

Descripción

Caserío unifamiliar de planta rectangular con gallur perpendicular a la fachada principal de orientación SE. Cubierta a dos aguas en teja canal artesana. Muros perimetrales de mampostería vista, con esquinales de sillaría. Consta de una planta, desván y bodega. Exento, frente a las antepuertas en el lado SE posee un anejo utilizado como horno de pan con cubierta a dos aguas. También exento, junto al esquinale W, existe un anties-tético anejo de hormigón que sirve de garaje. La fachada principal presenta en el lado N la entrada por un portón a la bodega que posee este caserío. Sobre esta bodega, ya en la planta baja, hay un balcón antepechado. La entrada principal se sitúa en esta fachada, pero en el lado S de la misma. Tiene como dintel un sector de viga aprovechado. La entrada consta de una puerta de una sola hoja presentando en el ángulo superior derecho una ventanilla que sirve de mirilla. La primera planta, presenta vanos que dan abertura al desván. El hastial está cerrado parcialmente por tablazón. La fachada NE, alta debido al desnivel del terreno, presenta dos saeteras que dan luz a la bodega. En la planta baja posee dos balcones antepechados que han sustituido a tres antiguas ventanas recercadas de sillar que poseía. La tercera ventana se mantiene aunque cegada. El desván por este lado está cerrado por tablazón. La fachada NW presenta una pequeña ventana en la planta baja y dos pequeñas saeteras a la altura del desván. Finalmente la fachada SW, muy baja debida al desnivel del terreno, presenta a lo largo de toda ella un anejo tejavana cubierta por una prolongación del tejado de este lado en la que existe un acceso directo al desván a través de un puente de madera. Este acceso está cubierto por un tejadillo que sobresale sobre la cubierta principal. A la altura de la primera planta, bajo la tejavana se sitúa la carrera o lugar donde se guardan los carros y aperos de labranza.

Este edificio presenta muros de carga interiores que alcanzan hasta el forjado del desván. La distribución de estos muros es como sigue: entrando desde la fachada principal y en la primera crujía paralelo a la fachada se sitúa un muro de carga. En el espacio entre ambos se sitúa la entrada. A la derecha de ésta se sitúa la cocina, separada de las habitaciones que ocupan todo el ángulo NE del edificio, por otro muro de carga perpendicular. La parte restante presenta en el centro otro muro de carga que divide la cuadra en dos partes. El desván presenta siete postes-ejes enterizos y regularmente dispuestos, de los cuales dos son bernias de un lagar gótico que poseía este caserío. Estos postes-ejes ensamblan las vigas y tornapuntas (en cola de golondrina), correas y cabrios que forman la estructura de este caserío. El hastial de la fachada principal se halla cerrado por tablazón machihembrado.

Mañastegizar es un edificio originario del siglo XVI, época de la que conserva gran parte de su estructura de madera.